

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, DONOSTIAKO UDALAREN 2009-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Donostiako Udalaren 2009ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak -Udala, bere toki erakunde autonomoak, enpresa-erakunde publikoak eta udalak gehiengoarekin partaidetutako sozietate publikoak barne hartzen dituenak- legezkontasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, administrazioko kontratazio eta diru-laguntzaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezkontasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Donostiako Udalaren Kontu Orokorrak ez ditu San Telmo Museoa, SA eta Vitoria Eugenia Antzokia, SA sozietateen Urteko Kontuak jasotzen, 21/2003 F Aren 1. artikuluekin lotuta 63. artikulua agintzen duen moduan. Biak ere % 100ean Donostia Kultura Enpresa-Erakunde Publikoaren jabetzakoak dira.

Langileei dagokienez, besteak beste, ez da argitara eman GAOn Tokiko Gobernu Batzarrak 2009rako onetsitako Udalaren langileen enplegu baldintzak arautzen dituen erabakia, erakunde autonomoei ere badagokiena.

Kontratazioaren atalean HKEEk jakinarazi du udal eraikinak, kultura gunek barne, osorik garbitzeko eta hondakinak jasotzeko garbiketa kontratua Udalak 1997an lau urtetarako esleitu zuela eta 2009an egikaritzen jarraitu dela, 2001eko urtean amaitua behar zukeena izan; kontratu berria 2011ko martxoan esleitu da.

Berebat, esleitutako obra, hornidura, laguntza tekniko, zerbitzu eta abarretako hainbat kontratutan administrazioko agiriak ireki eta kalifikatu egin direla eta horretarako eskumena duten teknikariek proposamenen balorazioari dagokion txostena mamitu dutela jakinarazi da; hori guztia, Kontratazio mahaia eratu aurretik. Halaber, esleitutako

hainbat kontratutan Kontratazio mahaiaren osaera ez da egokia izan, dela idazkaria eta/edo artekaria bertan izan ez direlako, dela arautegiak agintzen duen gutxieneko bokal kopurua osatu ez delako.

Amaitzeko, kontratazioaren atal honetan bertan jakinarazi da Udalak 1995az geroztik Amarako Eranskinaren XXV. etxadian eraikin bat egin eta ustiatzeko administrazio-emakidari eutsi diola, nahiz emakidadunak ezarritako kanona ordaintzeko obligazioa urratu duen.

Diru-laguntzen atalean publizitate eta lehia printzipioak bete gabe zuzenean esleitu diren hainbat diru-laguntza kasu jaso dira.

Udalaren Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du aurkezpen eta edukiari dagokionez; nolana den ere, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz salbuespen bat jaso du, Udalaren Diruzaintza Geldikina 80 milioi euroan murrizten dutenak, nagusiki, 2010ekoak diren hainbat kontzeptu modu okerrean 2009ko ekitaldiari egotzi zaizkiolako.

Erakunde autonomo, enpresa-erakunde publiko eta sozietate publikoei dagokienez, HKEEk legea betetzeari eta Urteko Kontuei buruz eman duen iritzia aldekoa da, nahiz txostenean bertan hainbat ez-betetze eta salbuespen jaso diren.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu eta kontabilitate, artekaritza kontrol, sarrera, langileria, kontratazio diru-laguntza eta beste zenbait ataletan.

Azkenik, 2007-2009 aldian sarrera eta gastuen zifra nagusien eboluzioak aurrezki garbiak bilakaera negatiboa izatea eragin du eta horren ondorioz, 2009an egindako inbertsioak nagusiki Diruzaintza Geldikinarekin, kapitalaren diru-laguntzekin eta zorpetzea areagotzearekin finantzatu dira eta neurri txikiagoan, egiazko inbertsioak besterenduta.